



Uztailaren 5eko 12/1989 FORU ARAUA, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa.¹

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA: IZAERA ETA EGITATE EZARGARRIA	2
1. artikulua.	3
2. artikulua.	3
3. artikulua.	4
II KAPITULUA: SALBUESPENAK	5
4. artikulua.	5
III. KAPITULUA: SUJETU PASIBOA	7
5. artikulua.	7
IV KAPITULUA: OINARRI EZARGARRIA	8
6. artikulua.	8
7. artikulua.	8
8. artikulua.	9
9. artikulua.	9
10. artikulua.	9
11. artikulua.	10
12. artikulua.	11
13. artikulua.	12
V KAPITULUA: KUOTA, SORTZAPENA ETA EZARRALDIA:	12
14. artikulua.	12
15. artikulua.	13
16. artikulua.	15
17. artikulua.	15
VI. KAPITULUA: KUDEAKETA.....	15
18. artikulua.	16
19. artikulua.	17
20. artikulua.	18
21. artikulua.	18

¹ Azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Aginduak, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak ematen dituenak, xedatutakoari jarraiki, Foru Arau honek pezetatan jasotzen dituen zenbateko guztiak eurotara aldatuak geratzen dira. (Abenduaren 13ko GAO, 238. zk.a)



VII. KAPITULUA. ERREFERENTZIA KATASTRALA ETA FINKA ZENBAKIA.	20
22. artikulua.	20
23. artikulua.	20
24. artikulua.	20
25. artikulua.	21
26. artikulua.	22
27. artikulua.	22
28. artikulua.	22
29. artikulua.	23
30. artikulua.	23
31. artikulua.	23
32. artikulua.	24
33. artikulua.	24
34. artikulua.	25
XEDAPEN GEHIGARRIAK	25
Lehena (edukurik gabe).	25
Bigarrena.	25
Hirugarrena.	26
XEDAPEN IRAGANKORRAK	27
Lehena.	27
Bigarrena.	27
Hirugarrena.	28
INDARGABETZE XEDAPENA	28
AZKEN XEDAPENA	28

ATARIKOA

Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau erregulatzailerak, haien tributubaliabideen artean, Ondasun Higiezinengaineko Zerga aipatzen du, Kontzertu Ekonomikoan aurrikusitakoaren arabera.

Horregatik, Foru Arau honek obligazioko Udal Zerga horren arauketa espezifikoa barnebiltzen du zeinaren ezarpenak Hirilur, Landalur eta Abeltzantza Kontribuzioak eta Orubeen gaineko Udal Zergaren ezeztatzea bait dakar, udal haziendako oinarritzko figura bilakatuz eta, ezarpen bikoitza ekiditzeko, zerga honetako kuota Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik deduzitu ahal izango da, nahiz eta kenkari hau aipatu azken Zergaren arautegian biltzen den.

Foru Arauak ezabatu diren aurreko zergetan aurrikusi foru hobarien gutxitze nabaria dakar eta oinarritzko papera damaie Udalei kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketa ahalmenak ematen bait dizkie bai borondatezko aldian nola exekutiboan.

Zerga honetako iharduerak koordinatu behar dituen Organo gisa Diputazioari dagozkio Zergaren Katastro eta Errolda egin, berrikusi eta kontserbatzeari buruzko funtzioak, bai eta katastro ikuskaritza ere.

I. Kapitulua: Izaera eta Egitate Ezargarria



1. artikulua.²

1. Ondasun Higiezin gaineko Zerga izaera erreala duen zuzeneko tributua da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan kokatuta dauden ondasun higiezin balioa zergapetzen du foru arau honetan ezarritako eran.

2. Ondasun higiezin hiritar eta landatarren gaineko eskubide hauen titularitateak eratzen du zergaren egitate ezargarria:

a) Ondasun higiezin gainean edo haiei atxikita dauden zerbitzu publikoen gainean dagoen administrazio emakida.

b) Azalera eskubide erreala.

c) Gozamen eskubide erreala.

d) Jabetza eskubidea.

3. Aurreko apartatuan adierazitako egitate ezargarrietako bat bertan ezarritako hurrenkeran gauzatzeak berarekin ekarriko du ondasun higiezina ez gelditzea apartatu horretan jasotzen diren beste modalitateei lotuta.

4. Ondasun higiezin bat udalerri batean baino gehiagotan kokatuta badago, zerga honen ondorioetarako ulertuko da horietako bakoitzekoa izango dela dagokion udalerrian hartzen duen azaleraren arabera.

5. Ez daude zerga honi lotuta errepideak, bideak, kaleak, gainerako lehorreko bideak eta gure libreak, betiere herri jabarikoak badira eta aprobetxamendu publiko eta doakoa badute.

2. artikulua.³

Zerga honi dagokionez, ondasun higiezin hiritartzat honakook hartuko dira:

1. Lurzoru hiritarra. Halakotzat hartuko da:

a) Hirigintzako plangintzan hiritar, hiritartu edo baliokide gisa sailkatuta edo definituta dagoena.

² 1. artikulua hau abenduaren 1eko 8/2006 FORU ARAUAK, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituenak, aldatzen du bere 6. artikuluko bat apartatuak. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2006-12-12) ondorengo egunean sartzen da indarrean.

³ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 7. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).



b) Hiritargaitzat hartutako lursailak edo, bestela, lurralde eta hirigintza antolaketako tresnek lurzoru hiritartu bihurtzea aurreikusi edo baimentzen duten lurzoruak, betiere espazio alor edo barruti mugatueta sartuta badaude, bai eta mota horretako gainerako lurzoruak ere horiek garatzeko zehaztapenak ezartzen dituen hirigintza tresna onartzen denetik aurrera.

c) Nekazaritza alorreko legerian jasotakoaren kontra zatikatzen diren lursailak, betiere zatikatzek nekazaritza erabilera desitxuratzen badu eta horrek ez badakar haien izaera landatarra zerga honen ondorioetarako baizik aldatzea.

2. Eraikin hiritarrak, hurrengo hauek hartuko direlarik horrelakotzat:

a) Eraikinak, eraikitzeke erabili diren osagaiak, kokatuta dauden lekuak, jasoak diren lurzoru mota eta izango duten erabilera edozein direlarik ere, eraikieragatik garraiatu badaitezke ere eta kokatuta dauden lursaila eraikinaren jabearena ez bada ere eta, beraiekin parekatu daitezkeen merkataritza eta industria instalazioak, hala nola dikeak, biltontziak eta karga-tokiak.

b) Hiritartu eta hobetzeko obrak, hala nola lur berdinketak eta estali gabeko eremuak erabiltzeko egiten direnak. Halakotzat hartuko dira azoka esparruak, aire zabaleko gordailuak, ur presak, ur jauziak, urtegiak (azken hirurotan, ondoak barne), kirol zelai eta instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikinei erantsitako guneak.

c) Hurrengo artikuluan landatar gisa kalifikatu ez diren gainerako eraikinak.

3. artikulua.⁴

Zerga honi dagokionez, honakook hartuko dira ondasun higiezin landatartzat:

a) Aurreko artikuluko 1. apartatuan xedatutakoaren arabera hiritartzat hartzen ez diren lursailak.

b) Eraikin landatarrak, honelakotzat lursail landatarretan egon eta nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza ustiapenak garatzeko behar-beharrezkoak diren nekazaritza eraikin eta instalazioak hartuta.

Zerga honi dagozkionez, nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza ustiapenetan erabiltzen diren estalpeak edo txabolak ez dira eraikintzat hartuko, haiek eraikitzean erabiltzen diren materialak arinak eta iraungaitzak dituztelako, lurra gehiago aprobetxatu, laboreak babestu, abelburuak haize agerian aldi baterako gorde edo jardueraren menpeko lanabes eta tresna bereziak gordetzeko bakarrik

⁴ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 7. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).



balio dutenean; zerga honi dagokionez, lursail landatarrei erantsitako obrak eta hobekuntzak ez dira eraikintzat hartuko, lursail horien balioaren zati banaezin direnak.

II Kapituluak: Salbuespenak

4. artikulua.⁵

1. Hurrengo ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira:⁶

a)⁷ Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, Estatuarenak eta toki entitateenak, baldin eta zuzenean herritarren segurtasunerako eta hezkuntzaren nahiz espetxeen zerbitzurako jarriak badira, eta Estatuak defentsarako dauzkanak.

b) Udalerrien jabetzako auzo ondasunak eta esku komuneko herri basoak. Era berean, salbuetsita egongo dira honako hauek:

1. Udalerrien, udal organismo autonomoen edo udalerri horiek erabat partzipatutako sozietateen jabetzako ondasunak, beti ere aipatutako udalerrien lurraldean kokaturik badaude.

2. Mankomunitateen, beren organismo autonomoen edo mankomunitate horiek erabat partzipatutako sozietateen jabetzako ondasunak, beti ere aipatutako mankomunitateek jarduten duten lurralde eremuan kokaturik badaude.

Aurreko 1. eta 2. kasuetan, salbuespena aplikagarria izan dadin, ezinbestekoa da ondasun horiek erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita egotea eta emakida administratiboko erregimenari lotuta ez agertzea, non eta emakida administratiboaren titularra ez den irabazi asmorik gabeko elkarte bat, Elkartearen Erregistroan izena emanda ez dagoen eta udalarekin batera bertako organo eskudunak udal onurakoak izendatutako lankidetzak jarduerak egiten ez dituen.

⁵ 4.artikulu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAREN 2.artikuluaren bi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

⁶ Bide azpiegiturak erabiltzeko kanona eta «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia,S.A.»foru sozietate publikoaren zerga arloko zuzenbide arauen alderdi batzuk arautzen dituen urriaren 3ko 7/2002 FORU ARAUAK Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia,S.A. foru sozietate publikoari ustiatzeko agindu zaizkion errepideak, bideak eta gainerako lehorreko bideak salbuetsita uzten ditu, nahiz eta haien erabilpena doakoa ez izan.

⁷ A9 letra hau abenduaren 1eko 8/2006 FORU ARAUAK, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituenak, aldatzen du bere 6. artikuluko bi apartatuak. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2006-12-12) ondorengo egunean sartzen da indarrean.



c) Gurutze Gorriarenak eta erregelamenduz zehaztuko diren gisa horretako beste entitateenak.

2. Era berean, eta eskaera aurrez aurkezturik, ondoko hauek salbuetsiko dira:

a) Erregelamenduz zehaztuko diren hazkunde moteleko espeziez landatutako mendien azalera, bere aprobetxamendu nagusia zura edo kortxoa denean, baldin eta zuhaitziaren dentsitatea espezie horri berez dagokiona bada.

Orobat, baso berritzen edo birlandatzen diren mendien azalera, baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuei edo plan teknikoei jarraiki egiten bada. Paragrafo honetan aurreikusten den salbuespenak hamabost urtez iraungo du, eskaera aurkeztu ondorengo zergalditik aurrera kontatuta.

b) Eliza Katolikoarenak, Estatu Espainiarrak eta Vatikanoko hiriak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz sinatutako Akordioan jasotakoaren arabera, eta legez onartuta dauden elkarte konfesional ez-katolikoarenak, Konstituzioaren 16. artikuluan xedatutakoaren indarrez izenpetutako lankidetzak akordioetan ezartzen den eran.

c) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen indarrez salbuespen hau aplikagarri duten ondasun higiezinak, eta elkarrekikotasun baldintza egonez gero, baita atzerriko gobernuenak ere, beren ordezkaritza diplomatiko edo kontsularrek nahiz beren organismo ofizialek erabiltzekoak direnean.

d) Trenbideek hartutako lurrak eta lur horien gainean dauden eraikinak, baldin eta horiek geltoki edo biltegi gisa nahiz linea horiek ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira.

Beraz, ostalaritza establezimenduak, ikuskizunetakoak, merkataritza eta aisialdi guneak, enplegatuentzako etxebizitzak, zuzendaritzako bulegoak eta lantegiak ez dira salbuetsita egongo.

e)⁸ Monumentu izaera duten edo monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikuluen 2 apartatuko a) letran jasotako moduan. Salbuespen hau kalifikatuta nahiz inbentariatuta dauden kultur ondasunei aplikatuko zaie, beti ere uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, salbuetsita egongo dira monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikuluen 2 apartatuko b) letran jasotako moduan. Salbuespen

⁸ e) letra hau Gipuzkoako Lurralde Historikoen 2004 urterako aurrekontu orokorrak onartzeari buruzko 2003ko abenduaren 19ko 22/2003 FORU ARAUaren Laugarren Xedapen Gehigarriak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1az geroztik izango ditu ondorioak, bertan bestela xedatzen ez bada.(GAO 249 zki.a, 2003-12-31koa).



horrek bakarrik hartuko ditu babes bereziko edo babes ertaineko erregimenen barruan sartutako ondasun higiezinak, kalifikatuak izan edo inbentariatuak izan, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legeak jasotako beharkizunak betetzen badituzte.

Era berean, ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 44. artikuluan aipatutako arkeologia zonetan kokaturik daudenean –zona horiek Kultur Ondasun gisa izendatuta egon behar dute eta kalifikatuak nahiz inbentariatuak izan-, baldin eta eskuhartze arkeologikoren bat bertan egin ondoren, Eusko Jaurlaritzako Sailak erabakitzen badu aurkitutako aztarnak bertan mantendu behar direla ezer kendu gabe eta tokiz aldatu gabe.

f)⁹ Onarri ezargarria 600 eurotik gorakoa ez duten ondasunak.

g) Unibertsitate Publikoak bere helburuak betetzeko atxikita dauzkan ondasunak, eta hezkuntza itunetara bildutako ikastetxe pribatuak, erabat edo zati batean itundutako ikastetxeak diren bitartean.

Apartatu honetan jasotako salbuespenak aplikatzeko, interesatuek eskaera aurkeztu behar diote alde zuzenetik udal eskudunari.

Ematen diren salbuespenek eskaera egin eta ondorengo zergalditik aurrera izango dute eragina.

3. Ordenantza fiskalek hala ezartzen badute, titularitate publikoko osasun zentroen ondasunak salbuetsita gera daitezke baldin eta ondasun horiek zentroen berezko helburuak betetzeari zuzenean lotuta badaude. Salbuespen honen gainerako alderdi guztiak, eduki nahiz formazkoak, ordenantza fiskalean arautuko dira.

III. Kapituluak: Sujetu Pasiboa

5. artikulua.¹⁰

1.¹¹ Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko

⁹ f) letra hau zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 Foru arauaren 8. artikulua bat apartatuak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (2005-11-03ko GAO).

¹⁰ 5. artikulua hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 2. artikulua hiru zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25eko).



2/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, eta testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, betiere zerga honen zerga-egitatea eratzen duten eskubideen titular badira.

Higiezin baten gainean emakidadun bat baino gehiago dagoenean, zergadunaren ordezkioak ordaindu beharko du kanon handiena.

2. Aurreko apartatua xedatutakoa halaxe aplikatuko da, eta horrek ez du eragotziko subjektu pasiboak jasandako zerga kuota zuzenbide komunaren arauen arabera jasanarazi ahal izatea.

Zergaren subjektu pasibo izan gabe ondasun demanialak edo ondarezkoak kontraprestazio bidez erabiltzen dituztenei jasanaraziko diete udal entitateek zergaren kuota likido osoa.

Era berean, zergadunaren ordezkioak gainerako emakida-hartzaileen gainean jasanarazi ahal izango du haiei dagokien kuota likidoaren zatia, eta zati hori bakoitzak ordaindu behar dituen kanonen arabera izango da.

IV Kapituluak: Oinarri Ezargarria

6. artikulua.

1. Zerga honen oinarri ezargarria ondasun higizinen balioa izango da.
2. Oinarri ezargarria zehazteko, ondasun higiezinen balioa, beraien katastroko balioa, erreferentzia gisa merkatuan duten balioa hartuz finkatuko dena, berau inoiz gainditzeko.

7. artikulua.

1. Hiri ondasun higiezinen katastroko balioa lurzoruen eta eraikuntzen balioa izango da.
2. Lurzoruen balioa kalkulatzeko, berari dagozkion hirigintz inguruabarrak hartuko dira gogoan.
3. Eraikuntzen balioa kalkulatzeko hirigintzaeraikuntzazko baldintzak ezezik, izaera historiko-artistikoa, erabilera edo xedea, beraien kalitatea eta aintzinasuna eta eragina izan dezakeen beste edozein faktore ere hartuko dira gogoan.

¹¹ Apartatu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 7. artikulua aldatu du. Aipatutako foru araua Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzen du. Foru araua GAOari argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-11-18ko GAO) eta 2016ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



8. artikulua.

1. Landa ondasunen katastroko balioa lurraren eta eraikuntzen balioa izango da.
2. Landa lurren balioa beraien benetako errentak edo potentzialak erregelamenduz ezarriko den interesean kapitalizatuz kalkulatuko dira, lurraren ekoizmenaren, lugintza eta aprobetxamendu desberdinen eta katastroko ezaugarrien arabera.

Errenta horiek kalkulatzeko, nekazal ezaugarri homogeneousun alde edo eskualde bakoitzeko errentamendu zein gasailak ikertzetik lortuko diren datuei heldu ahal izango zaie.

Halaber, atal honi dagokionez, landa lurren barruan sartutako hobekuntzak, haren balioaren zati banaezin direnak eta, bidezko denean, ekoizten hasi arte igarotako urteak hartuko dira gogoan; baso ustiapenak dituztenentzat, landaketaren adinari, zuhaiztiaren egoerari eta aprobetxaldiari helduko zaie.

Dena dela, aprobetxamendu handiagora jotzen duten ekoizpide arrunten aplikazio edo erabilpena hartuko da gogoan, ez ordea, aparteko eskuarteak erabili ahal izatea.

Hala ere, ustiapenaren izaerak edo udalerriaren ezaugarriek benetako errentak edo potentzialak ezagauzen zailtzen dutenean, ondasunen katastroko balioa, beraien hobekuntza iraunkorrek eta landaketak barne, teknika, nekaritza eta ekonomiaren inguruko faktoreei eta beraiei dagozkien inguruabarrei begira kalkulatu ahal izango da.

3. Landa eraikuntzen balioa aurreko artikuluko 3. ataleko arauak aplikatuz kalkulatu da, beraien izaerak horretarako aukera ematen duen heinean.

9. artikulua.

Foru Arau honen 6. artikuluko 2. atalak aipatzen dituen katastroko balioak Ondasun Higiezinaren Katastroetan dauden datuetan oinarrituz finkatuko dira. Katastroko balio horiek berrikusi, aldarazi edo eguneratu ahal izango dira, kasuan kasukoa, honako Foru Arau honen 11, 12 eta 13. artikuluetan aurrikusitakoaren arabera.

10. artikulua.

Landa eta Hiri Ondasun Higiezinaren Katastroak landa eta hiri ondasun higiezinaren datu eta deskripzioek osotzen dituzte, azalera, kokapena, mugak, lugintza edo aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta lurralde jabetza ezagutarazi eta bere aspektu eta aplikazioetan definitzen duten gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak adieraziko direlarik.



11. artikulua.¹²

1. Katastro balioak Foru Arau honen 7. eta 8. artikuluetan arautzen diren balorazio irizpideen arabera finkatuko dira.

2.¹³ Gipuzkoako Foru Aldundiak balio ponentziak prestatuko ditu. Haietan jasoko dira irizpideak eta balorazio taulak, eta indarrean dagoen hirigintza antolamenduan mugatzen den lurzoru hiritarra, bai eta katastro balioak finkatzeko beharrezkoak diren bestelako elementuak ere.

Ondasun higiezin zati bat bi udalerritan, hirutan edo gehiagotan kokaturik dagoenean, horien balorazioa ondasun higiezin bakoitzari edo erabilera edo helburu homogeneousko ondasun multzo bati ponentzia berezi eta bakar bat aplikatuz egin ahal izango da.

3. Balio ponentzia horiei buruz, Aldundiak udalak entzungo ditu eta gehienez 15 eguneko epea emango die egoki jotzen duten txostena egin dezaten.

Udalen txostena ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiak bidezko irizten duena ebatziko du.

4.¹⁴ Gipuzkoako Foru Aldundiak onartuko ditu balio ponentziak, eta ondoren jendaurrean jarriko dira 15 eguneko epean. Epe horretan, interesatuek nahibadako berraztertze errekursoa jarri ahal izango dute Foru Aldundian edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan. Erreklamazio horiek ez dute etengo egintzaren betebeharreketasuna.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren ediktuen bitartez iragarriko da ponentzia horiek onartu eta jendaurrean jarri direla. Ponentzietatik eratorritako balio katastroalek ondorioa izan aurreko lehen urteko urriaren 1a baino lehen iragarriko da.

5.¹⁵ Ponentziak jendaurrean jartzen direnetik aurrera, horietatik ateratzen diren katastro balioak indibidualki jakinarazi behar zaizkio subjektu pasibo bakoitzari,

¹² 11. artikulua hau Sozietateen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen dituzten Foru Arauen hainbat artikulua aldatzen dituen uztailaren 8ko 4/1997 Foru Arauaren 13. artikulua aldatu du, eta 1997ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

¹³ 2. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 9. artikuluko Hiru apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

¹⁴ 4. apartatu hau, Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 6. artikuluko apartatu hirugarrenak aldatzen du. 2001eko otsailaren 17an sartu zen indarrean.

¹⁵ 5. apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 6. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/1228ko GAO).



subjektu pasiboa bera edo propio baimendutako pertsona erabakitzen diren bulego publikoetara bertaratuta. Balio horiek indarrean sartu aurreko lehen urtea amaitu baino lehen jakinaraziko dira.

Erregelamenduz arautuko da nola egingo den jakinarazpena interesatua bertaratuta. Nolanahi ere, epe bat ezarriko da jakinarazpenak jasotzeko, eta epe hori ezingo da izan hogeit egun naturalekoa baino txikiagoa, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuta. Orobat, interesatuak bertaratzeko epe hori Gipuzkoan zabalkunde gehien duten egunkarietan argitaratuko da jakinarazpenak jasotzeko epearen lehen egunetan.

Jakinarazpena eramateko epea amaitzen bada eta hura jaso gabe badago, balio katastral berriak jakinarazitzat joko dira ondorio guztietarako.

Artikulu honetan aipatzen diren balio katastralak finkatzeko egintzak arrazoituak izango dira beti, eta balio horien jakinarazpen bakoitzean honako datuak adieraziko dira: balio horiek finkatzeko erabilitako ponentzia, zona edo azpizona katastrala, lurzorua balio eragingarria, eraikuntza kostua, aplikatutako koefiziente zuzentzaileen identifikazioa, ondasun higiezinak katastroaren ondorioetarako duten azalera eta, azkenik, lokalaren antzinasuna eta helburua. ME ponderazio koefizientea ere aipatu beharko da, hau da, balio katastrala zehazteko prozedurak aurreikusten duena eta kasu bakoitzean aplikagarri dena.

6. Horrela finkatzen diren katastro balioak zortzi urtetan behin berrikusi beharko dira.

12. artikulua.¹⁶

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezinak merkatuko balioen artean.

2. Aldaketa hori egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da balio ponentzia berriak prestatzea edo, hala badagokio, indarrean daudenak aldatzea, aurreko artikuluan esandakoaren arabera.

3.¹⁷ Balio ponentziak aldatu ahal izango dira, halaber, lursail landatarrek kalifikazio hori galtzen dutenean hirigintzako plangintza aldatzeagatik.

¹⁶ 12. artikulua hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurri Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 9. artikuluko Lau apartatuak berridatzi du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

¹⁷ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 7. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).



4. Balio ponentziak egin ondoren, aurreko artikuluan arautzen diren tramite eta prozedurekin jarraituko da.

13. artikulua.¹⁸

Ondasun higiezinaren katastroetan jasota dauden datuetatik abiatuta finkatzen diren balio katastralak foru arau bidez onartuko diren koefizienteak aplikatuz eguneratu ahal izango dira.¹⁹

Koefiziente horiek kontuan hartu beharko dira finkatzen diren balio katastral berriak katastroko datuekin alderatuta aldaketa fisiko edo juridikoak izan dituzten ondasun higiezinari aplikatu behar zaizkienean. Horrelakoetan aplikatuko diren koefizienteak balioen ponentzia onartu denetik balio berriak finkatu arte ezarritakoak izango dira.

V Kapituluak: Kuota, Sortzapena eta Ezarraldia:

14. artikulua.²⁰

1. Zerga honen kuota osoa oinarri ezargarriari karga tasa aplikatzetik ateratzen den emaitza izango da.

¹⁸ 13. artikulua hau Ondasun Higiezinaren gaineko zergari dagozkion xedapenak ematen dituen azaroak 25ko 9/2002 Foru arauko 1. artikuluko lehengo apartatuak berriro datu, 2002ko abenduak 3tik aurrerako ondorioekin.

¹⁹ Gipuzkoako Lurralde Historikoen 2011. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 4/2010 FORU ARAUAREN bostgarren xedapen gehigarriak zera esten du: 2010. urtean indarrean dauden balioei 1,02ko eguneratze koefizientea aplikatuko zaie 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera. 2011ko urtarrilaren 1az geroztik izango ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO).

Gipuzkoako Lurralde Historikoen 2013. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 12/2012 FORU ARAUAREN hirugarren xedapen gehigarriak zera esten du: 2012. urtean indarrean dauden balioei 1,02ko eguneratze koefizientea aplikatuko zaie 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera. 2013ko urtarrilaren 1az geroztik izango ditu ondorioak. (2012-12-28ko GAO).

Gipuzkoako Lurralde Historikoen 2014. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2013 FORU ARAUAREN hirugarren xedapen gehigarriak zera esten du: 2013. urtean indarrean dauden balioei 1,01ko eguneratze koefizientea aplikatuko zaie 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera. 2014ko urtarrilaren 1az geroztik izango ditu ondorioak. (2013/12/26ko GAO).

2015eko zergaldian bere horretan mantentzen dira 2014rako finkatutako balio katastralak, abenduaren 22ko 2/2014 FORU DEKRETU ARAUAREN 3. artikulua ezartzen duenaren arabera. Aipatuta foru dekretu arauak aurrekontuen luzapenak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera zerga arloan izango duen eragina zehazten du (2014/12/30ko GAO).

²⁰ 14. artikulua hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAREN 2. artikulua lau zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25eko).



2. Kuota likidoa kuota osotik foru arauetan jaso eta ordenantza fiskaletan onartzen diren hobariak gutxituz lortuko da.

3. Ondasun hiritarren kasuan, karga tasa 1000ko 0,4koa izango da, eta ondasun landatarren kasuan 100eko 0,3koa.

4. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izanik ere, udalek jarraian adierazten den moduan gehitu ahal izango dituzte bertan aipatzen diren karga tasak:

a) Ondasun higiezin hiritarren kasuan, bi motatakoa izan daiteke gehitutako karga tasa:

- Bata, izaera orokorrekoa, 1000ko 4ko mugaraino.

- Bestea, 1000ko 6ko muga duena, lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoan kokatuta dauden ondasun higiezonei aplikatuko zaie dagozkien balorazio ponentzien arabera; erabilera nagusia industrial edo hirugarren sektorekoa ez duten eraikinetan kokatutakoak hortik kanpo geratzen dira.

b) Ondasun higiezin landatarren kasuan, 100eko 1,1eraino gehitu ahal izango da karga tasa.

5.²¹ Ondasun higiezonek etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, udalek 100eko 150erainoko errenergua ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Errenergua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errenergua hau aplikatzearen ondorioetarako, Katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak etxebizitza erabilera duten ondasun higiezin hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira, finka erregistratutakoak osatzen dutenean. Ondorio horietarako ere, presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatu badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela.

Aurrekoa ahal izanik ere, udalek beren ordenantza fiskaletan ezarri dezakete zer kasutan ez den aplikatuko apartatu honetan aipatzen den errenergua.

15. artikulua.²²

²¹ Apartatu hau udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 4ko 4/2012 FORU ARAUaren 1. artikulua aldatu du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2012-07-10eko GAO).

²² 15.artikulu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 2.artikuluaren bost zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun



1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte zerga kuota osoaren gainean:

a)²³ Kuota osoaren %50etik %90era bitarteko hobaria, betiere interesatuek obrak hasten diren zergaldiaren barruan hala eskatzen badute, honako ondasun higiezinaren kasuan: obra berrikoak nahiz haiekin parekagarri diren eraberrikuntzakoak, urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inmobiliarioko enpresek egiten duten jardueraren xede direnean eta haien ibilgetuaren artean ageri ez direnean.

Hobari hau aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalдитik horiek amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da, eta betiere denbora horretan urbanizazio edo eraikuntza lanak benetan egiten badira. Epe horrek ezingo ditu inoiz hiru zergaldi gaingitu.

b) Kuota osoaren 100eko 90era bitarteko hobaria, subjektu pasiboak familia ugarien titularrak direnean. Ordenantza fiskalak zehaztu egin beharko du zein ondasun mota sartzen diren hobari honetan, zein ezaugarri bete beharko dituzten, iraupena zenbatekoa izango den eta zein izango den urteko zenbatekoa; hobari honen gainerako alderdi substantibo eta formalak ere finkatu beharko ditu, beste zerga onura batzuekin bateragarri izateko baldintzak ezartzeaz gainera.

c)²⁴ Kuota osoaren %50erainoko hobaria babes publikoko etxebizitza berrietarako eta, dela proiektuan dela erregistroan, haiei lotuta dauden garaje eta trastelekuetarako, betiere behin betiko kalifikazioa eman ondoren.

d)²⁵ Zergaren kuota osoaren %50era bitarteko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinatarako. Hobari hori aplikatuko bada, beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak eduki behar dituzte.

berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).

²³ a) letra hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/1228ko GAO)

²⁴ Letra hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 7. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

²⁵ d) letra hau, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren III Kapituluako 8. Artikuluko bi apartatuak gehitu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak Hala ere, aipatu aldaketak 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.



e)²⁶ Zergaren kuota osoaren %50erainoko hobaria, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretu bidez etxebizitza hutsei buruz onartutako Bizigune programaren barruan edo antzekoak diren beste foru edo udal programa batzuen barruan erabilera-lagapena duten ondasun higieziei dagokienez.

2. Ordenantza fiskalek aurreko apartatueta aipatutako hobarien alderdi substantibo eta formalak zehaztu beharko dituzte, eta beste zerga onura batzuekin bateragarri izateko baldintzak ezarri.

16. artikulua.²⁷

1. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

2. Zergaldia bat dator urte naturalarekin.

17. artikulua.²⁸

1. Baldin eta zerga honen gaia eratzen duten eskubideen titularitatea zeinahi den arrazoiengatik aldatzen bada, eskubide horiei atxikitako ondasun higieziei zerga zor osoa ordaindu beharko dute, Zergen Foru Arau Orokorrak aurreikusitakoari jarraiki. Horretarako, notarioek informazioa eskatuko dute, eta espresuki agerleak ohartaraziko dituzte, haiek baimentzen dituzten dokumentuetan, eskualdatzen den higiezinari lotuta dauden eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan ordaindu gabe dauden zorrez, interesatuek zergaren aitorpena aurkeztu behar duten epeaz, ondasunek zerga zorraren ordainketarekin duten atxikipenez eta, gainera, aitorpenak ez aurkezteagatik edo epea kanpo egiteagatik edo aitorpenak desitxuratuta, osatu edo zehaztu gabe aurkezteagatik bere gain hartu ditzaketen erantzukizunez.

2. Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3 apartatuan aipatzen dituen entitateetako partaide edo titularkideek solidarioki eta nork bere partaidetzaren proportzioan erantzungo dute zerga kuotaren ordainketaz, Ondasun Higiezinaren Katastroan hala inskribaturik ageri badira. Ez badira inskribaturik ageri, erantzukizuna zati berdinetan exijituko da beti.

VI. Kapituluak: Kudeaketa

²⁶ Letra hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 7. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

²⁷ 16. artikulua hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 9. artikuluko Sei apartatuak berridatzi du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

²⁸ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hamabigarren xedapenaren 2 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).



18. artikulua.

1.²⁹ Bere katastro erroldatik abiatuta kudeatzen da zerga. Udalerri bakoitzak urtero prestatuko du errolda hori, eta bertan ondasun higiezin, subjektu pasiboen eta balio katastralen zentsuak jasoko dira, lurzoru landatar eta hiritarrak bereizita. Errolda udalei bidaliko zaie urtero, ordainagiriak kobratzeko aldia iritsi aurretik.

Ondasun higiezin hiritarrei dagokien katastro erroldak erreferentzia katastrala eta zenbaki finkoa ere jasoko ditu. Urteko erroldaren datuak Ondasun Higiezin gainera Zergaren ordainagiritan ageriko dira derrigorrez.

2. Subjektu pasiboek Zerga honen menpeko ondasunak finkatzen diren lurraldeko Udalerri egin beharko diote aitorpena, araubidez ezarritako diren epeen barruan:

a) Eraikuntza berriak direnean, alta aitorpenak egin beharko dituzte.

b)³⁰ Zerga honi lotuta dauden eskualdaketa egiten direnean, eskuratzailerak alta aitorpena aurkeztu beharko du eskualdaketa arrazoitzen duen dokumentuarekin batera. Aurrekoaren kaltetan gabe, eskualdatzaileak bere esku izango du baja aitorpena aurkeztea eskuratzaileraren izena eta helbidea, ondasunen mugak eta kokapena, eskualdaketa data eta, halaber, zein kontzepturengatik egiten den bertan adieraziz.

c) Kargapeko ondasunei dagozkien maila fisiko, ekonomiko edo juridikoko aldaketengatik sorlitezkeen aldakuntzak.

3.³¹ Ondasun higiezin katastroetan datuak sartu, kendu edo aldatu behar badira katastroen berrikuspenengatik, katastro balioen finkapen, berrikuspen edo aldaketengatik, ikuskaritzaren jarduketengatik edo altak eta komunikazioak egiteagatik, horiek administrazio egintzat hartuko dira, eta zergaren errolda aldatzea ekarriko dute. Ondasun higiezin katastroetan jasotako datuen erroldan edozein aldaketa egiteko, nahitaezkoa izango da katastro horiek aurretik

²⁹ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 7. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

³⁰ b) letra hau Sozietateen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezin gainera Zerga arautzen dituzten Foru Arauen hainbat artikulua aldatzen dituen uztailaren 8ko 4/1997 Foru Arauaren 14.artikuluak aldatu du, eta 1997ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

³¹ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 7. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).



aldatzea zentzu berean. Foru Aldundiak udalei bermatuko die beti haien udalerrietako ondasun higiezinaren katastro informazio osoa eskuratzeko aukera.

Ondasun higiezinaren aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoen ondorioz higiezinaren katastroetako datuetan sartzen diren aldaketek foru arau honetako 11. eta 12. artikuluetan katastroa berrikusi edo aldatzeko jasotzen diren prozedurekin zer ikusirik ez dutenean, interesatuei jakinarazi behar zaizkie Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 105. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Nolanahi dela ere, gertatzen bada aldaketak izaera juridikoko alterazioen ondorio direla titularitatea eskualdatu delako edo foru arau honek 1. artikulua 2. apartatuan jasotzen dituen eskubideak eratu direlako, zilegi izango da tramite hori ez betetzea aldaketak egiteko kontuan hartuko diren dokumentuak interesatuak Zerga Administrazioari aurkeztutako edozein aitorpenetan emandakoak ez beste direnean.

4.³² Zergapeturiko ondasunetan gertatzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen horiek gertatu ondorengo zergaldian izango dute eragina, baina eragin hori ez da lotuta geratuko egintza administratiboen jakinarazpenari.

5.³³ Eraiki berriaren aitorpen katastralaren aurkezpena akreditatzeko exijitu dezakete udalek, ondasun higiezinak lehen aldiz okupatzea baimentzen duen lizentzia emateko prozedura tramitatze aldera. Udala aurreko apartatuan aipatutako komunikazio prozedurara bildu bada, aitorpena akreditatu beharrean komunikazioa bidaltzeko behar den informazio osagarria exijitu daiteke.

19. artikulua.

1. Kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, hala borondatezko aldian nola premiamendu bidean, kargapeko ondasunak finkatzen diren udal barrutiko Udalarri dagozkio, hurrengo 3. zenbakian xedatuko denaren kalterik gabe.

2.³⁴ Zehazki esanda, udalei dagokie altak eta bajak tramitatu eta likidatzea, errekurso eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea, eta Erroldari buruz nahiz zergarekin lotutako gaiei buruz zergadunak eska dezakeen laguntza eta informazioa ematea.

³² 4. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 9. artikuluko Zortzi apartatuak gehitu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

³³ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 7. artikuluko bost apartatuak gehitu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO)

³⁴ 2. apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAREN 6. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/1228ko GAO).



3.³⁵ Balio ponentziak egin eta onartzea, katrostro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea, eta halaber, Katastroen eta Zergaren Erroldaren eraketa, berrikuspen, kontserbazio eta gainerako eginkizunak burutzea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagozkio soil-soilik.

Udalek Foru Diputazioarekin egingo dute lan, Katastroa egin eta kontserbatzeko.

Foru Diputazioari kobrantzako ordainagirien gertuketa Zergaren katastro-ikuskapena ere dagozkio.

Foru arau honen 4. eta 15.1 artikuluetan jasotako salbuespen eta hobariak eman eta ukatzeko, beti ere Foru Aldundiaren aurretiazko txosten teknikoa beharko da, eta hartuko den ebazpena geroago Aldundiari bidaliko zaio.³⁶

20. artikulua.³⁷

Foru arau honetako 11. eta 12. artikuluetan xedatutakoaren arabera balio ponentziei buruz hartutako onarpen egintzen aurka eta katastro balioen aurka jartzen diren errekurso eta erreklamazioak Zergen Foru Arau Orokorren 229.etik 246.era bitarteko artikuluetan xedatutakoari jarraituz arautuko dira. Berraztertze errekursoa ebazteko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiak izango du. Errekurso eta erreklamazio horiek jartzeak ez du etengo egintzen exekuzioa.

21. artikulua.³⁸

1. Denek eskuratu ditzakete beren titulartasuneko ondasun higiezinaren informazioa eta katastroan jasotako babesik gabeko datuen informazioa.

Datu babestuak dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren titular edo subjektu pasibo gisa katastroan izena emanda agertzen direnen izen-abizenak, sozietatearen izena, identifikazio kodea eta helbidea.

2. Katastro informazio babestuan sar daitezke, eragindakoaren baimenaren beharrik gabe.

³⁵ 19. artikuluko 3. apartatuaren lehen parrafo hau Sozietateen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen dituzten Foru Arauen hainbat artikulua aldatzen dituen uztailaren 8ko 4/1997 Foru Arauaren 14. artikulua aldatu du, eta 1997ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

³⁶ Parrafo hau, Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 6. artikuluko apartatu bosgarrenak aldatzen du. 2001eko otsailaren 17an sartu zen indarrean.

³⁷ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako hamabigarren xedapenaren 4 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

³⁸ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 7. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri dira indarrean (2015-12-28ko GAO).



a) Gipuzkoako Foru Aldundiko organoak, gainerako foru aldundietakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekoak, bai eta lurralde administrazio publikoetako organoak, Zerga Administrazioaren Estatu Agentzia eta Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak ere, betiere eskumen, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioetatik datozen mugak ezarrita.

b) Ikerketako batzorde parlamentarioak, Arartekoa eta Kontu Auzitegia, bai eta antzeko funtzioak betetzen dituzten erregimen erkideko erakundeak edo erakunde autonomikoak ere.

c) Epaileak eta auzitegiak, eta Ministerio Fiskala.

d)³⁹ Sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateak, beren funtzio publikoak bete ditzaten, haien administrazio nagusiaren bitartez, betiere aurreko a) apartatuan jarritako baldintzak betetzen badira.

3. Aurreko kasuetatik kanpo, datu katastral babestuetan, eragindakoak baimen espresua, berariazkoa eta idatzizkoa emanda bakarrik sar daiteke edo, bestela, lege batek edo foru arau batek baimen hori baztertzeko duenean edo informazioa interes legítimo eta zuzenaren kasu hauetako batean lortzen denean:

a) Unibertsitateek edo ikerketa zentroek historia, zientzia edo kultura alorrean babestutako ikerketa proiektuak gauzatzeko, betiere Ogasun eta Finantza Departamentuak proiektu nabarmentzat hartzen baditu.

b) Foru arau honen VII. kapituluari jasotakoa betetzeko: notarioak eta jabetzaren erregistratzaileak.

c) Alboko lur-zatiak identifikatzeko: Katastroan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren titular edo subjektu pasibo gisa agertzen direnak.

d) Hirigintza jarduneko eremu batean sartutako lur-zatiak identifikatzeko: Katastroan jardun eremu bereko beste lur-zati baten Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren titular edo subjektu pasibo gisa agertzen direnak.

e) Katastroan inskribatutako ondasun higiezinaren gainean izaten diren garrantzi errealeko edo errentamenduko eskubideen edo partzuergo eskubideen titularrak edo titularkideak, ondasun higiezin horiei dagokienez.

f) Oinordekoak eta ondorengoak, katastroan inskribatuta dauden kausatzailearen edo eskualdatzailearen ondasun higiezinari dagokienez.

³⁹ Letra hau abenduaren 23ko 7/2015 FORU ARAUaren 5. artikulua aldatu du. Aipatu foru araua bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).



Kasu hauetan datu katastral babestuetan sartzeak ez du Ogasun eta Finantza Departamentua behartzen haien edukia akreditatzen duen ziurtagiririk egitera.

VII. Kapitulua. Erreferentzia katastrala eta finka zenbakia.⁴⁰

22. artikulua.

Ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia jasota egon behar dira tresna publikoetan, agindu eta ebazpen judizialetan, espediente eta ebazpen administratiboetan, garrantzi errealeko gertakari, egintza edo negozioak jasotzen dituzten dokumentuetan, higiezinaren erabilerako edozein tituluren errentamendu edo lagapen kontratuetan, argindarra hornitzeko kontratuetan, proiektu teknikoetan edo arauz zehazten diren ondasun higieziari buruzko beste edozein dokumentutan. Era berean, Jabetzaren Erregistroan jasota utzi behar da, legez jasotako kasuetan.

23. artikulua.

Ez da beharrezkoa erreferentzia katastrala eta finka zenbakia jasotzea:

- a) Berme eskubide errealean deuseztapena jasotzen duten dokumentuetan.
- b) Zuzenbide publikoko zorren kobrantza ziurtatzeko neurriak hartu edo deuseztatzen dituzten egintza administratiboetan.
- c) Zergabilketa araudian jasotako ordainketa gerorapen edo zatikapenei buruzko prozeduretan, eta zerga alorreko egiaztapen, ikerketa eta likidazio prozeduretan, aipatu erreferentzia Zerga Administrazioak lehendik ezaguna duenean.
- d) Jabetzaren Erregistroan premiamenduzko prozedura batean emandako ebazpen judizial bat edo ebazpen administratibo bat bete eta exekutatze egin beharreko oharpenetan.

24. artikulua.

1. Ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia ematera behartuta daude:

- a) Foru arau honen aplikazio eremuan sartutako ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealean edo garrantzi errealeko eskubideen titularrak, ondasun horiei buruzko prozedura bat bideratu edo ebazteko eskumena duen agintari judizial edo administratiboaren aurrean.

⁴⁰ Kapitulua hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 7. artikuluko zazpi apartatuak gehitu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).



b) Dena delako ondasun higiezinaren gainean eratutako gertakaria, egintza edo negozioa jasotzen duen dokumentu notarialaren errekeritzaileak edo egileak, notarioaren aurrean.

c) Jabetzaren erregistratzaileari ondasun higiezonei buruzko idazpen erregistral bat egiteko eskatzen diotenak, Jabetzaren Erregistroaren aurrean.

d) Foru arau honek 22. artikuluan aipatutako hornidurak kontratatzen dituztenak, enpresa hornitzaile horien aurrean, eta errentatzaileak edo lagatzaileak, aldiz, higiezinaren erabilera edozein titulu bidez errentan eman edo lagatzeko kontratu pribatuetan.

e) Aurreko paragrafoetan jasotako kasuetatik kanpo, aldeek edo interesatuek beren kabuz jasoko dituzte aipatu erreferentzia eta zenbakia beraiek egin edo luzatzen dituzten dokumentuetan.

2. Finkak aldatzen direnean, nahikoa izango da jatorrizko finken erreferentzia katastrala eta finka zenbakia ematea, aipatu aldaketak jasotzen dituen plano edo proiektuarekin batera, baldin eta beharrezkoa bada dena delako eragiketa egiteko.

3. Erreferentzia katastrala eta finka zenbakia ematera bat baino gehiago behartuta badaude, behin horietako batek obligazioa betez gero, ulertuko da harekin batera dauden behartutako guztiek bete dutela.

25. artikulua.

Ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia jasota utziko dira espediente eta ebazpen administratiboetan, tresna publikoetan eta Jabetzaren Erregistroan, behartutakoak erakutsi edo aurkezten duen dokumentutik ateratzen denari dagokionez. Aipatu dokumentua hauetako bat izan behar da, betiere agiri horretan argi eta garbi jasota badaude aipatu erreferentzia eta zenbakia:

a) Ziurtagiri deskribatzailea eta grafikoa, Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenez onartzen diren prozedura telematikoen bidez lortutako zedula partzelarioaren forma hartzen duena.

b) Foru Aldundiko Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak egindako ziurtagiria edo beste dokumentu bat.

c) Eskritura publikoa edo informazio erregistrala.

d) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiria.

2. Agintari judicial edo administratiboak edo notarioek edo jabetzaren erregistratzaileek zuzenean aurreko 1. apartatuaren a) letran aipatutako zedula partzelarioak lortzen dituztenean, dokumentu publikoa egiten dutenek edo



inskripzio erregistrala eskatzen dutenek ez dute zertan bete aurreko artikuluan aipatutako obligazioa.

3. Aurreko 1. apartatuaren b) letran aipatutako ziurtagiria egin edo lortzeko eskumena administrazio bereko edo beste bateko organoen esku utzi daiteke.

26. artikulua.

Ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia eman behar zaizkio: agintari judizial edo administratiboari, 10 eguneko epean errekerimendua egiten denetik aurrera; notarioari, dokumentua baimendu aurretik; eta jabetzaren erregistratzaileari, aldiz, haren bulego ordutegiaren barruan. Gainerako kasuetan, ordea, dokumentua egin edo kontratua sinatzerakoan eman behar dira erreferentzia katastrala eta finka zenbakia.

Ondasun higiezinaren erreferentzia katastralik eta finka zenbakirik ez badute horiek eman behar direnean, aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera, foru arau honek 24. artikuluan aipatutako behartutakoek dena delako agintari judizial edo administratiboari edo, bestela, argindarra hornitzeko zerbitzua ematen duen konpainiari eman behar dizkiote hilabeteko epean, haiek jakinarazi direnetik aurrera.

27. artikulua.

1. Prozedura administratiboa bideratzeko eskumena duen organoak, notarioak edo jabetzaren erregistroak interesatuei ohartarazi behar diete, espresuki eta idatziz, noiz ez diren betetzen ari kapitulu honetan jasotako obligazioa.

2. Era berean, notarioek edo jabetzaren erregistratzaileek interesatuei ohartarazi behar diete foru arau honek 18. artikuluan 2. apartatuan jasotako aitortzeko obligazioak irauten duela, notarioek baimendu edo jabetzaren erregistratzaileek inskribatutako dokumentuei buruzko kasuetan, baldin eta horien edukia dela medio higiezin osoaren jabetza eskuratu edo kontsolidatzen bada bakarrik, betiere interesatuek erreferentzia katastrala eta finka zenbakia aurkeztu badituzte kapitulu honetan jasotakoari jarraituta eta aipatu eragiketa eskritura publikoan formalizatzen bada edo eskritura Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko eskatzen bada bi hilabeteko epean, dena delako gertakari, egintza edo negozioaz geroztik, kapitulu honetan ezarritako komunikazio obligazioak bete ez direnean.

28. artikulua.

1. Erreferentzia katastrala eta finka zenbakia legez jarritako epean aurkezten ez badira, gertakari hori jasota utzi behar da espediente edo ebazpen administratiboan, dokumentu notarialean bertan edo idazpenaren alboko oharrean eta Jabetzaren Erregistroa inskribatutako izenburuaren oinean.

2. Erreferentzia katastralik edo finka zenbakirik aurkeztu ezear:



a) Ez da etengo prozeduraren tramitazioa eta ez da eragotziko hura ebaztea.

b) Ez da eragotziko notarioek dokumentua baimentzea eta ez dio eragingo horren eraginkortasunari edo horretan jasotako gertakari, egintza edo negozioaren eraginkortasunari.

3. Inskribatzekoak diren dokumentuetan erreferentzia katastralik edo finka zenbakirik ez jasotzeak edo ez aurkezteak Jabetzaren Erregistroan idazpenak egitea eragotziko du, hipoteka legeriari jarraituta.

4. 2. apartatuan jasotakoa ulertuko da prozedurarekin jarraitzeko hainbat dokumentazio katastral aurkeztea exijitzen den kasuetarako bereziki araututakoa edo ebazpena Jabetzaren Erregistroan inskribatzekoa den kasurako legez ezarritakoa eragotzi gabe.

29. artikulua.

Kapitulu honetan jasotakoari dagokionez, ulertuko da erreferentzia katastrala eta finka zenbakia finkaren identitatearekin bat datozeela, kasu hauetan:

a) Kokaleku, izen eta, halakorik badago, azalerari buruzko datuak tituluko datuekin eta, hala badagokio, Jabetzaren Erregistrokoekin bat badatoz.

b) %10etik gorakoak ez diren azalera diferentziak daudenean, eta, gainera, bestelako datu deskribatzaileen ondorioz finkaren identitateari buruzko zalantza sendorik ez dagoenean. Kale izendegia eta zenbakikuntza aldatuz gero, horrelako zirkunstantziak frogatu behar dira, non eta organo eskudunak, notarioak edo erregistratzaileak horien berri ez duen.

30. artikulua.

Foru arau honen aplikazio eremuan sartutako ondasun higieizinei buruzko prozedura administratiboa bideratzeko eskumena duen organoak eskubide errealean edo garrantzi errealeko eskubideen titularrei eskatuko die foru arau honek 22. artikuluan aipatutako erreferentzia katastrala eta finka zenbakiari buruzko frogagiriak aurkeztu ditzatela, salbu prozedura telematikoen bidez lortu baditzake. Prozedura amaitzen duen ebazpenean, erreferentzia katastrala eta finka zenbakia nahiz, hala badagokio, frogagiria jasota utziko dira; era berean, adierazi behar da erreferentzia katastrala eta finka zenbakia aurreko artikuluan jasotakoari jarraituta finkaren identitatearekin bat ote datozen.

31. artikulua.

1. Notarioek foru arau honek 22. artikuluan aipatutako tresna publikoen egile edo errekeritzaileei eskatu behar diete erreferentzia katastralari eta finka zenbakiari buruzko frogagiriak aurkeztu ditzatela foru arau honek 25. artikuluan jasotakoaren arabera, salbu prozedura telematikoen bidez lortu baditzakete. Era berean, notarioek aipatu erreferentzia katastrala eta finka zenbakia



transkribatuko dituzte beraiek baimentzen duten dokumentuan, eta aipatu frogagiriak agiri nagusiari erantsiko dizkiote kopietara aldatu daitezen.

2. Foru arau honek 24.2 artikuluan aipatutako kasuetan, notarioak eskrituraren kopia soila bidaliko dio, plano edo proiektuarekin batera, interesatuak aurkeztuz gero, Foru Aldundiko Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuari, horrek erreferentzia katastral eta finka zenbaki berriak eman ditzan. Aipatu zerbitzuak erreferentzia katastral eta finka zenbaki berriak jakinaraziko dizkio, eragindako finkaren titularrari ez ezik, dokumentua baimentzen duen notarioari ere, agiri nagusiak jasota utzi dezan diligenza bidez edo finkaren deskripzioaren alboko ohar bidez.

Kasu horietan, notarioak berari aurkeztzen zaion kopian transkribatuko du agiri nagusiko oharra edo diligenza, interesatuek hala eskatzen badute.

32. artikulua.

1. Jabetzaren Erregistroko idazpenetan erreferentzia katastrala eta finka zenbakia jasota uztearen helburua da, besteak beste, informazioa Jabetzaren Erregistrotik ondasun higiezinaren katastrora aldatzen dela ahalbideratzea.

2. Behin dokumentazioa kalifikatuta, erregistratzaileak inskribatzekoa den dokumentuan egileek emandako erreferentzia katastrala eta finka zenbakia jasoko ditu idazpenean, finkaren datu deskribatzaileetako bat gehiago izango balitz bezala, erreferentzia katastrala eta finka zenbakia finkaren identitatearekin bat datozenean foru arau honek 29. artikuluan jasotakoari jarraituz.

3. Aurreko apartatuan jasotakoa jasota ere, finken identifikazio katastrala berriazko eragiketa gisa jaso daiteke erregistroan, lege jasotakoari jarraituz.

4. Inskribatutako erreferentzia katastralak eta finka zenbakiak finkaren ezaugarri fisikoen aldaketa batetik eratorria ez den aldakuntzaren bat jasan ez gero, hori jasota uzteko nahikoa izango da Foru Aldundiko Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak berriaz ziurtagiria egitea.

5. Erreferentzia katastralean eta finka zenbakian dauden desberdintasunek ez diote eragingo inskripzioaren baliagarritasunari.

33. artikulua.

1. Prozedura administratibo bat bideratzeko eskumena duen organoaren, notarioaren edo jabetzaren erregistratzailearen iritziz gerta daitekeenean interesatuak aurkeztutako dokumentuetatik eratorritako erreferentzia katastrala eta finka zenbakia bat ez etortzea, nahiz eta foru arau honek 29. artikuluan jasotakoaren arabera antzekotasunik baden, gertakari, egintza edo negozio juridiko dokumentuari lotutako ondasun higiezinarekin, Foru Aldundiko Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuari jakinarazi eta ziurtagiria edo dokumentu informatiboa eskatuko dio. Aipatu agiria, jasota uzteko aukera ematen duen



edozein bitarteko erabiliz bidaliko zaio ahalik eta azkarren, derrigorrez eskaera jaso ondorengo bost lanegunen barruan.

2. Prozedura administratiboetan, ziurtagiri hori espedientean sartuko da, behin interesatuei entzun ondoren, nahiz eta espedientea ebatzia izan.

3. 1. apartatuan jasotakoa jasota ere, dokumentu notarialetan, dokumentuaren egileek premia adieraziz gero, notarioak dokumentua baimendu dezake, zirkunstantzia hori jasota utzirik; hartan erreferentzia katastrala eta finka zenbakia transkribatu, frogagiria aipatu eta erreferentzia katastrala eta finka zenbakia higiezinarekin bat etortzeari buruzko zalantza adieraziko du. Behin dokumentua baimenduta, notarioak ez ditu aipatuko Foru Aldundiko Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak adierazitako erreferentzia katastrala eta finka zenbakia, dokumentu egileek ez badute horretarako baimenik ematen.

4. Jabetzaren erregistratzaileak, ziurtagiria edo dokumentu informatiboa bidaltzen zaionean, behin aldeko kalifikazioa eman ondoren, idazpenean jasota utziko ditu erreferentzia katastrala eta finka zenbakia, edo, jadanik hura egina bada, idazpenaren alboko oharra idatziko du eta, hala badagokio, izenburuaren oin-oharra ere egingo du.

34. artikulua.

Foru arau honek 22. artikuluan jasotako obligazioa ez betetzea edo erreferentzia katastral eta finka zenbaki faltsuak edo faltsutuak aurkeztea zerga urraketatzat hartuko da, eta 60 eurotik 6.000 eurora bitarteko isunaz zigortuko da Zergen Foru Arau Orokorrak jasotakoari jarraituz. Dena den, behartutakoak erantzukizunetik salbuetsita geratuko dira aipatu erreferentzia katastral eta finka zenbakiak ez daudenean edo foru arau honek 25. artikuluan jasotako bitartekoak erabiliz ezagutu ezin direnean.

Katastroa kudeatzen duten organoek dute zigor prozedura bideratu eta zigorra jartzeko eskumena.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena (edukirik gabe).⁴¹

Bigarrena.⁴²

⁴¹ Xedapen gehigarri hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 7. artikuluko zortzi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁴² Bigarren xedapen gehigarri hau, Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 6. artikuluko apartatu seigarrenak aldatzen du. 2001eko otsailaren 17an sartu zen indarrean.



1. Gipuzkoako lurralde historikoko udalek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketa ahalmenen eskuordea Foru Aldundiari eman ahal izango diote, hitzarmenaren sinaduraren bitartez.

2. Foru Aldundiak zerga honetatik lortzen duen bilketa likidoa udalerri bakoitzean likidatuko da, eta zuzenean udalerriari esleituko zaio.

3.⁴³ Zergaren bilketan Foru Aldundiak emandako zerbitzuaren kostua udalerri bakoitzari esleitutako bilketa likidotik kenduko da.

Hona hemen zerbitzuaren kostua:

a) Borondatezko aldian bildutako kopuruen 100eko 2,4koa.

b) Premiamenduzko bidean biltzen den borondatezko aldiko zerga zorraren 100eko 10ekoa.

4. Eskuordetza hitzarmenak ondorio-urtea hasi aurretik formalizatuko dira, eta haien formalizazioaren ondorengo sei hilekoaren barruan argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Era berean, aipatu hitzarmenaren amaieraren gaztigua argitaratuko da.

5.⁴⁴ Eskuordetza horren indarrez emandako egintzak Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoaren arabera inpugnatu ahal izango dira.

Hirugarrena.⁴⁵

Martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 12/1996, 13/1996 eta 14/1996 legeetan nahiz 1/1997 Errege Lege-Dekretuan jasotako zerga neurri batzuetara egokitzeak, 22. artikuluan aipatzen dituen eskritura eta agiriak egiten direnean eta horiek Katastroan inskriba daitezkeen ondasun higiezinaren aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak jasotzen dituztenean, abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 55. eta 56. artikuluan ezarritakoa, urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauak, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarenak, 33. artikuluan jasotakoa, eta gainerako arau baterakorretan zehaztutakoa ez da katastroaren ondorioetarako aplikagarria izango.

⁴³ Apartatu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 8. Artikuluko Bi Zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

⁴⁴ 5. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorrearen amaierako hamabigarren xedapenaren 5 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

⁴⁵ Xedapen Gehigarri hau uztailaren 6ko 24/2001 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren 11. artikulua gehitu du. 2001ko uztailaren 16an indarrean sartzen da



XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.⁴⁶

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan, 1990.eko urtarrilaren 1etik aurrera exijituko da.

Hiri ondasun higieziari dagokienek, katastroko balioen finkapena Foru Arau honetan bildutako xedapenen arabera egiten ez den bitartean, 1989ko abenduaren 31an indarrean egongo diren Hirilur Kontribuzioko katastroko balio guztiei 1,7 koefizientea aplikatuz egingo den eguneratzearen bidez exijituko da Zerga.

Landa ondasun higieziari dagokienek, ondasun horien katastroko balioetatik 1990eko urtarrilaren batean Landalur eta Abere Kontribuziorako indarrean dauden oinarri likidagarrien zenbatekoa 100eko 3an kapitalizatzearen emaitza aplikatuz exijituko da Zerga.

Aurreko atalean adierazitako datararte, Landalur eta Abere eta Hirilur Kontribuzioak exijituko dira eta data berberararte Udalek Orubeen gaineko Udal Zerga exijitzen segitu ahal izango dute.

2. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aplikazioaren hasieran Landalur eta Abere Kontribuzioan edo Hirilur Kontribuzioan hobari fiskalen bat dutenek, lehenengoz aipatu den Zergan, berberak edukitzen segituko dute harik eta azkendu arte eta, erabiltzeko amaiera datarik ez balute, 1992ko abenduaren 31rarte, berau barne.

1992ko abenduaren 31rarte egindako eraikinek, Babes Ofizialeko Etxebizitei buruzko legeriaren babesean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotaren 100eko 50eko hobaria izango dute, eraikuntza amaituko den datatik kontaturiko 3 urtetan zehar.

3. Honako Foru Arau honen 15. artikuluan ezarritako hobariaz baliatzeko epea, artikulua horren 3. atalak aipatutako urbanizazio eta eraikuntzarako obrak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aplikazioaren hasiera baino lehen hasi direnean, obra horien hasiera datatik Zerga indarrean jarri arte igarotzen diren urteen kopuruz gutxituko da.

Bigarrena.

⁴⁶ Lehen xedapen iragankorraren hirugarren parrafoa abenduaren 20ko 12/1991 Foru Arauak, aurrekontu, finantza eta zerga alorreko premiazko neurriei buruzkoak, indargabetu du, ondorioak 1992ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten direlarik.



Foru Arau honek aipatzen dituen Udalen egungo tributuen ezabaketa, horren aplikazioaren ondorioa izanik, bai eta tributu horiek gidatzen dituzten xedapenen indargabeketak, Administrazioak xedapen horien arabera aurretik sortutako zorrak exijitzeko duen eskubidearen kalterik gabe ulertzen dira.

Hirugarrena.⁴⁷

Katastroari dagokionez, foru arau honek 22. artikuluan aipatutako eskriturei eta dokumentuei ez zaie aplikatuko 1987ko abenduaren 30eko 18/87 Foru Arauak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 55. eta 56. artikuluetan, 1990eko urtarrilaren 11ko 3/90 Foru Arauak, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarenak, 33. artikuluan eta horiekin bat datozen gainerako arauak xedatutakoak, baldin eta katastroan inskribatzekoak diren ondasun higiezinaren arlo fisiko, ekonomiko edo juridikoko aldaketak jasotzen badituzte.

INDARGABETZE XEDAPENA

1. Honako Foru Araua indarrean sartzen den datatik, bertan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko nahiz beheragoko xedapenak indarrik gabe utziko dira.
2. Aurreko atalean aurrikusitakoa Foru Arau honen Xedapen Iragankorretan ezarritakoaren kalterik gabe ulertzen da.

AZKEN XEDAPENA

1. Baimena ematen zaio Foru Diputazioari, honako Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan. (13)
2. Foru Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

⁴⁷ Xedapen iragankorra hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 7. artikuluko bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Maiatzaren 21eko 7/1990 FORU ARAUA, Ondasun Higiezin Zergan, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan izaera tributarioko zenbait neurri hartzen dituen. (1990-05-29ko GAO)*
 - 1. artikulua 4k) eta 14.4 artikulua aldatzen ditu.
- *Apirilaren 5eko 7/1991 FORU ARAUA, premiazko neurri fiskalei buruzkoa. (1991-04-15eko GAO)*
 - 10. artikulua bigarren xedapen gehigarria gehitzen du.
- *Abenduaren 20ko 12/1991 FORU ARAUA, Aurrekontu, Finantza eta Ondasun Higiezin gaineko Zerga alorrean premiazko neurriak hartzen dituen. (1991-12-27ko GAO)*
 - Lehen xedapen iragankorraren 3. parrafoa indargabetzen du.
- *Ekainaren 24ko 5/1994 FORU ARAUA, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren zati bat aldatzekoa. (1994-07-06ko GAO)*
 - 4.l) artikulua aldatzen du.
- *Azaroaren 21eko 109/1995 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako herrialde historikoko zerga araudia uztailaren 4ko 19/1995 Legeak, Nekazaritza Ustategiak Modernizatzeak, jasotako zerga neurrietara egokitzeak. (1995-12-04ko GAO)*
 - Bigarren xedapen gehigarriak 4.c) artikulua aldatzen du.



- *Martxoaren 18ko 26/1997 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 12/1996, 13/1996 eta 14/1996 legeetan nahiz 1/1997 Errege Dekretu-Legean jasotako zerga neurri batzuetara egokitzen duena. (1997-04-04ko GAO)*
 - 21. artikulua 2.a) eta 4.a) artikulua aldatzen ditu.
- *Uztailaren 8ko 4/1997 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen dituzten foru arauen hainbat artikulua aldatzen dituena. (1997-07-14ko GAO)*
 - 12.artikulua 4b) artikulua aldatzen du.
 - 13.artikulua 11. eta 12. artikulua aldatzen ditu.
 - 14. artikulua 18.2b), 18. 3, 19.3 eta 20. artikulua aldatzen ditu.
- *Otsailaren 25eko 1/1998 FORU ARAUA, Zerga Neurriei buruzkoa(1997-04-04ko GAO).*
 - 10. artikulua 15.4 artikulua gehitzen du. (1998-03-05eko GAO).
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1999rako Aurrekontu Orokorrak onartzeari buruzko abenduaren 21eko 7/1998 FORU ARAUA. (1998-12-29ko GAO).*
 - Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren balio katastral guztiak eguneratu dira.
- *Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA. (1999-12-31ko GAO)*
 - 9. artikulua 2. artikulua b) letrako 2. apartatua, 4. artikulua b) eta l) letrak, 11. artikulua 2., 4. eta 5. apartatuak, 12. artikulua, 13. artikulua eta 16. artikulua aldatzen ditu. 18. artikulua 1. apartatuari bigarren parrafo bat gehitu zaio, 18. artikuluari 3. apartatua aldatu eta 4. apartatua gehitu zaio, 19. artikulua 3. apartatuko azken parrafoa aldatu da.



- 7. xedapen gehigarriak, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, higiezin landatar nahiz hiritarrei dagozkien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren balio katastral guztiak eguneratzen dituela 1999ko abenduaren 31n indarrean dagoen balioari 1,02 koefizientea aplikatuz xedatzen du.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 FORU ARAUA.(2001-02-16ko GAO)*
 - 6. artikulua, 4. artikuluen b) letraren azken parrafoa aldatzen du. 2 apartatua gehitu dio 4. artikuluari. 11. artikuluen 4 apartatua, 14. artikulua, 19. artikuluen 3 apartatuaren azken parrafoa eta bigarren xedapen gehigarria aldatzen ditu.
 - Uztailaren 6ko 24/2001 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren.(2001-07-16ko GAO) Bere 10. Artikuluak 11.5 artikuluari apartatu bat gehitzen dio eta bere 11. Artikuluak 14.3 artikuluari apartatua eta xedapen gehigarri hirugarrena gehitzen dizkio.
 - Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 FORU ARAUA. (2002-05-20ko GAO) Bere 8. Artikuluak 5 artikulua eta Bigarren Xedapen Gehigarriko 3 apartatua aldatzen ditu.
 - Azaroak 25eko 9/2002 Foru araua, Ondasun Higiezinaren gaineko zergari buruzko zenbait neurri ezartzen dituen (BOG 02-12-2002) Bere 1. artikulua 13. artikulua eta 14. artikuluko hirugarren apartatua aldatzen ditu.
 - Bere 2. artikulua 1,02ko eguneratze koefizientea ezartzen du, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- *Martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUA, toki entitateen zerga sistema aldatzen duena. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).*
 - Bere 2. artikulua 1. artikulua, 4. artikulua, 5. artikulua, 14. artikulua, 15. artikulua eta 17. artikulua aldatu ditu.



- *Abenduaren 19ko 22/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2004.urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen. (GAO 249 zki.a, 2003-12-31).*
 - Bere Hirugarren Xedapen Gehigarriak, 2003.urtean indarrean dauden Balio Katastraei 1,02 eguneratze koefizientea aplikatuko zaiela ezartzen du, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
 - Bere Laugarren Xedapen Gehigarriak 4.artikuluaren 2.apartatuko e) letra aldatu du.
- *Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16)*
 - 8. Artikuluak 17. artikuluko 1 apartatua aldatu du eta 15. artikuluko 1 apartatuaren d) eta e) letrak gehitu ditu.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2005. Urterako aurrekontu orokorrak onartzeari buruzko 2004ko abenduaren 23ko 9/2004 FORU ARAUA. (2004-12-31ko GAO).*
 - Bere Bostgarren Xedapen Gehigarriak, 2004.urtean indarrean dauden Balio Katastraei 1,02 eguneratze koefizientea aplikatuko zaiela ezartzen du, 2005ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO).*
 - Bere amaierako hamabigarren xedapenak honako prezeptu hauek aldatu ditu: 5. artikuluen 1. apartatua, 17. artikulua, 18. artikuluen 3. apartatua, 20. artikulua eta bigarren xedapen gehigarriaren 5. apartatua.
- *Etxebizitzan alokairua sustatzeko zerga neurriei buruzko urriaren 27ko 9/2005 FORU ARAUA (2005-11-03ko GAO).*
 - Bere lehen xedapen indargabetzaileak 14. artikuluko 5. apartatua utzi du indarrik gabe.



- *Zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 FORU ARAUA (2005-11-03ko GAO).*
 - 8. artikulua 4. Artikuluaren 2. Apartaduko f) letra eta 15. artikuluko 1. apartatuko a) letra aldatu ditu.
- *8/2006 FORU ARAUA, abenduaren 1ekoa, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituena (2006-12-12ko GAO)*
 - 6. artikulua 1 artikulua eta 4. artikuluen 1. apartatuko a) letra.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2007. Urterako aurrekontu orokorrak onartzeari buruzko 2006ko abenduaren 22ko 9/2006 FORU ARAUA. (2006-12-29ko GAO).*
 - Bere Laugarren Xedapen Gehigarriak, 2006.urtean indarrean dauden Balio Katastraei 1,02 eguneratze koefizientea aplikatuko zaiela ezartzen du, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- *Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena. (2008-07-11ko GAO).*
 - 7. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 2. eta 3. artikulua
 - 12. artikuluko 3. apartatua.
 - 14. artikuluari 5. apartatua gehitzen dio.
 - 15. artikuluko 1. apartatuaren c) eta e) letrak.
 - 18. artikuluko 1. eta 3. apartatuak eta 5. apartatua gehitzen du.
 - 21. artikulua.VII. kapitulua gehitzen du.
 - Lehen xedapen gehigarria edukirik gabe uzten du.
 - Hirugarren xedapen iragankorra.



- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2009. Urterako aurrekontu orokorrak onartzeari buruzko 2006ko abenduaren 23ko 9/2008 FORU ARAUA. (2008-12-31ko GAO).*
 - Bere Bosgarren Xedapen Gehigarriak, 2008.urtean indarrean dauden Balio Katastralei 1,02 eguneratze koefizientea aplikatuko zaiela ezartzen du, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- *4/2009 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituena (2009/12/23ko GAO).*
 - Bere 6. artikuluko prezeptu hauek aldatzen ditu: 11. artikuluko 5. apartatua; 15. artikuluko 1. apartatuaren a) letra eta 19. artikuluko 2. apartatua.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2011. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 4/2010 FORU ARAUA (2010-12-28ko GAO).*
 - Bere bosgarren xedapen gehigarriak zera esten du: 2010. urtean indarrean dauden balioei 1,02ko eguneratze koefizientea aplikatuko zaie 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- *Udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 4ko 4/2012 FORU ARAUA (2012/07/10eko GAO).*
 - 1. artikuluko 14. artikuluko 5. apartatua aldatzen du.
- *7/2015 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena (2015/12/28ko GAO).*
 - 5. artikuluko 21.2. artikuluko d) letra aldatzen du.
- *2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzea (2016/11/18ko GAO).*



- 7. artikulua 5. artikuluko 1. apartatua berridatzi du, 2016ko urtarrilaren 1eko ondorioekin.